

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sustapenak 4,1 milioiko kostua duten obrei hasiera emango die aurtengo udan Izurdiagako trenbide-pasagunea kentzeko

Proiektua Garinoaingo udalari ere aurkeztu zaio bertako trenbide-pasagunea kentzeko

Viernes, 20 de marzo de 2015

Sustapen

Departamentuak aurtengo udan emango die hasiera Izurdiagako trenbide-pasagunea kentzeko obrei. 4,1 milioi euroko proiektua da eta 12 hilabetetan egitea aurreikusten da.

Nafarroan dauden azken lau pasagunetako bat da,

Garinoain, Berriozar eta Ezkirozkoarekin batera. Lehenengoaren kasuan, udalarekin hitz egiten ari dira bertako pasagunea ken dadin, eta azken biak abiadura handiko trena heltzen denean desagertuko dira, nahiz eta departamentua haiek kentzeko proiektuetan ere lanean aritu den.



Izurdiagako trenbide-pasagunea.

Behin betikoz onestean Kontratazioko Atarian berehala argitaratuko den Izurdiagako proiektuak honako hau jasotzen du: egungo trenbide-pasagunea kentzea (NA-7010 errepidearen 21,580 kilometro-puntuan dagoena, eta 357 ibilgailuren eguneroko batez besteko intentsitatea duena); oinezkoentzako pasabidea eraikitzea eta errepide-zati berri bat eraikitzea. Pasagune hori kentzeko eskaera aspalditik egin izan dute zonaldeko bizilagunek, eta haren gainean zenbait azterketa nahiz proposamen egin dira urte askoan.

Zehazki, jarduketa 21,750 kilometro-puntuan hasten da, San Juango auzora heldu aurretik; puntu horretan hasten da errepidearen zati berria: 1.234 metro ditu guztira, 2,50 metro zabaleko bi erreietako galtzada bat eta albo bakoitzean 0,50 metroko bazterbideekin, egungo bideari glorieta baten bidez lotuko zaiona.

Bidea goialdeko pasabide batekin gainditzen da eta, behin gurutzatuta, saihesbideak errepidearekin bat egiten du beheko pasabidetik hurbil, A-15aren azpian; bertan lotzeko azkeneko glorieta bat egitea proposatzen da. Azkenik, proiektuak oinezkoentzako pasabide metaliko bat eraikitzea ere jasotzen du (24,55 metro luzekoa, ez irristatzeko zolarekin eta bandaloen aurkako hesiekin), kentzen den trenbide-pasagunearen kokapen bera, bai eta ingurua hesitzea ere. Bi glorietek 4 metro zabaleko bi errei izango dituzte, 0,50 metroko barneko bazterbidea eta 1 metroko kanpoko beste bat. Bestalde, goiko pasabidea 20 metroko

argia duen bao bakarreko zubi bat izango da.

Garinoain, Berriozar eta Ezkizozko egoera

Garinoaini dagokionez, departamentuak udalari berriki proiektu bat proposatu zion eta, hark trenbide-pasagunea ixtea eta ibilgailuak handik hurbil dagoen Barasoingo goialdeko pasabidetik desbideratzea (350 metrora) proposatzen du. Gainera, Adifekin adostutako irtenbide horretan, N-121 errepidearen azpiko pasabidea zabaltzea aurreikusten da (4,5 metroko galiboarekin), nekazaritzako makinak errepide nazionalen sar ez daitezen, gaur egun gertatzen dena. Udalerriko alkatea irtenbidearekin ados agertu zen, baina departamentua erabakia datorren osoko bilkura batean berresteko zain dago.

Berriozarren kasuan, Sustapen Departamentua udalarekin zenbait aldiz bildu da trenbide-pasagunea ixteko gaia aztertzeko; zirkulaziorako ordezkoko bideak proposatu ditu eta oinezkoentzako pasabide berri bat. Zehazki, iragan urriaren 24an udalak onartu ez zituen hiru aukera proposatu ziren, eta Adifek proposatutako galibo murrizteko pasabide bat jartzeko irtenbidea ere ez zuen onartu (3,5 metrokoa).

Ezkizozten kasuan, udalak jadanik adierazi du pasagune hori ez dela udalerrirako arazoa; hala ere, departamentua hura desagertzeko lanean ari da, eta udalari proiektu bat aurkeztuko dio azter dezan. Proiektu horrek oinezkoentzako pasabide bat eraikitzea jasotzen du trenbide-pasagunearen inguruan trenbidetik ez igarotzeko, eta ibilgailuen zirkulaziorako jadanik badauden ordezkoko bideak erabiltzea.

Nafarroako trenbide-pasaguneen historia

Espanian 2.357 trenbide-pasagune daude, eta probintzia bakoitzeko 48 aldiz pasatzen da trena batez beste bertatik. 1999an 46 trenbide-pasagune zeuden Nafarroan, eta haietatik lau geratzen dira egun. Hala, Foru Komunitatea pasagune gutxien dituen Espainiako eskualde bihurtu da (Asturias da hurrengoa, 23rekin).

1998an eta 1999an Sustapen Ministerioarekin eta Renfe/Adifekin akordioak sinatu ziren 38 trenbide-pasagune kentzeko. 2004an Renferekin beste akordio bat sinatu zen beste 6 kentzeko (Castejon-Bilbo lineako 4rak Lodosan, Noaingoa eta Larragetakoa). Akordio horietatik, aipatu denez, kentzeko beste bi geratzen dira: Izurdiaga eta Garinoain, eta haiei beste bi erantsi behar zaizkie: Ezkizozkoa, Abiadura Handiko Trena iristen denean kenduko dena (5. zatia), eta Berriozarkoa, Iruñerriko etorkizuneko trenbegizta kenduta desagertuko dena.

Gaur arte, Sustapen Departamentuaren, Adifen eta Nafarroako Gobernuaren artean 43 milioi euro inbertitu da trenbide-pasaguneak kentzeko. Nafarroako Gobernuak kendu ditu pasagune gehien eta hark egin du inbertsio handiena ere (24,47 milioi euro) 25 pasagunetarako; Sustapen Ministerioak 7 kendu ditu, 10,82 milioi euroko inbertsioarekin, eta Renfe/Adifek 10 kendu ditu, eta, horretarako, 8,60 milioi euro xahutu du.